



ORNITORRINKUS

Disko-liburua

Maialen Lujanbio: Letrak eta ahotsa.

Judith Montero: Saxofoi sopranoa, altua, tenorra eta baritonoa.

Xabier Erkizia: elektronikak eta zaratak.

Ornitorrinkus musika garaikideak, elektronikak eta bertsoak elkar hartuta osaturiko hotsen eta ahotsen proiektua da. Saxofoiak, elektronikak eta ahotsak -a-priori elkarrengandik urrunak diruditen hiru jardunek- bakoitzak bere alorra arakatuz lehenik eta elkar eraginez ondoren, hizkuntza berri trinko bat sortzeko ahalegina da. Esperimentazioa bide eta helburu duena.

Ornitorrinkoa -ezaugarri itxura batean bateraezinak gorputz bakarrean biltzen dituen animalia-, irudi sinboliko bezala hartuta, sailka ezina denaz, izateaz eta izan ezinaz ari da Ornitorrinkus.

2006 hasi eta lau urteren ondoren, disko-liburu hau orain arte ibilitako bidearen erregistro moduko bat da, proiektuaren hastapenetatik osatu eta

landutako hainbat ariketa, musika edo kantu (norberaren gustuen arabera) biltzen dituen. Diskoko soinu pieza bakoitza Ornitorrinkusen ibilbidean emandako pauso bat da, oraindik nora doan jakin ez litekeen bidean.

Paperezko euskarriak eta soinuuzkoak elkar osatzen dute, disko-liburu deitzen dugun objektu definigaitz honetan. Objektua, **Xabier Gantzarain** eta **Eneko Aristik** diseinatua da. Bertan, **Jose Belmonte** marrazkilariak soinu piezak irudi bihurtu ditu. Kantu bakoitzari indibidualki loturiko marrazkiek, aldi berean eta elkarrekin osotasun bat egiten dute, piztia ezezagun miragarri bat sortuz: Ornitorrinkus.

Jose Belmonteren marrazkiez eta Maialen Lujanbioren bertso eta testuez gain, **Jakoba Errekondo**, **Joseba Sarrionandia**, **Xabier Erkizia** eta **Ixiar Rozasek** idatzitako testu berriak ere biltzen ditu liburuak, soinu piezak abiapuntu hartuta espreski sortutakoak.

2010eko aurkezpenen agenda:

- **Azaroak 6**, 18:00etan Gernikako Astra gaztetxean. “Kafea eta Galletak”: entzunaldi komentatua.
- **Azaroak 7**, 19:00tan, Usurbilen, Sutegin: emanaldia.
- **Azaroak 25**, 19:00tan, Donostian Artelekun: entzunaldi komentatua
- **Abenduak 7**, 11:30etan, Durangon, Ahotsenean: entzunaldi komentatua
- **Abenduak 28**, Hernanin, “Bertso-lata”: emanaldia

Irudi, soinu eta bestelako informazioetarako:

www.ornitorrinkus.org / ornitorrinkus@gmail.com

